

ALFREDO FLORISTÁN IMIZCOZ

«Nafarroakoa enpresa 'herrikoia' izan zen gaztelarrentzat»

Iruñean jaioa, Madrilgo Alcalako Unibertsitateko Aro Modernoko historia katedraduna da. Nafarroako konkistari loturiko makina bat lan argitaratu du azken 25 urteotan, batez ere konkistari buruzko interpretazio ezberdinez eta Nafarroaren Gaztelarako “gehitze prozesuaz”. Besteak beste, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra-ko kide da.

Nafarroako Gobernuak 1512ko konkistaren bosgarren mendeurrena gogoratzeko sorturiko batzorde zientifikoaren presidentea da Floristan Imizcoz. Nafarroako Gobernuak 2011n antolaturiko konkistari buruzko kongresuan defendatu zuen konkista inguruko noble gaztelarrek eginiko “enpresa” bat izan zela eta ez hainbeste Fernando Katolikoak aurreikusitako operazio bat. 2012ko otsaileko *Pregón* aldizkarian –*Diario de Navarra*-rekin batera saldua– teoria berdinean sakontzen du Floristán Imizcozek *Navarra en 1512: ¿Quién conquistó y quien fue conquistado?* izeneko artikuluan.

“1512ko uztailleko lehen inbasioan, soldadu profesionalak osatutako nukleo murriz batekin batera, gaztelar tituludun batzuk etorri ziren, euren seme eta zordunekin; baita inguruko hiribildu eta probintzietako miliziak ere. 1512ko azaroko Iru-

ñeko laguntzan¹⁵ eta 1521eko Noaingo borrokan ere berdin ikusten da: hurbileneko Gaztelaren mobilizazio azkarra. (...) Seguruenik, Nafarroakoa, enpresa 'herrikoia' izan zen haientzat, Portugalgo konkista (1580) mendebaldeko gaztelarrentzat izan zen bezalaxe. (...)

Honek iradokitzen digu elementu kualitatiboak kontuan hartu behar direla. Zeren-eta konkistatzaileek ez zuten garitu soilik konkistatuak baino gehiago, indartsuagoak edo zorteagoak zirelako. (...) Birplanteatu beharko dira nafarren arrazoiak borrokarako –edo borrokarik ez egiteko–, eta horrek eramaten gaitu beaumontarrek eta agramontarrek izan zuten papera aztertzerara. (...)

Oso errotuta dagoen arren, baztertu behar da Fernando Katolikoak konkista aurreikusi zuela dioen ideia: terrena preparamatu zuen, inbasioa erabaki, aukera aprobeztatu eta... bere zoriaz ikaratu egin omen zen. Hainbat testigantzen arabera, Gipuzkoa babesten zuen ejerzitito ingelesa itsasoratu ze-

nean, okupazioa utzi eta atzera egitea pentsatu zuen, Frantziaren erreakzioaren beldur. Baina testigantza hauek, kapitain eta noble gaztelarren osotasuna kontrajartzen duten Katolikoaren segurtasun falta eta erabakitzeko gaitasunik ezaren aurrean”.



Katalina erregina gerrara bidean irudikatzen duen miniatura ezaguna.

15- 1512ko azaroaren 24an, Joanes III.ak eta Pedro II.a mariskalak gidaturik, nafarrez, biarmotarrez, gaskoiez eta alemanez osaturiko gudarosteak Iruñea eraso zuen hiriburua berreskuratzeko asmoz. Baina Albako dukearen tropek eta beaumontarrek erasoari eutsi zioten.